

7. URKOME SARIAK

2021ko Abenduaren 10ean, goizeko 12etan, Azoka Plaza eraikineko Batzar Aretoan, 7.Urkome Sariak banatu dira. Bertan epaimahaiaren akta irakurri eta sariak banatu dira.

Ondorengoak dira 6 sariak, bakoitza 1.000€ko ordainsariarekin

- Nekazaritza jardueraren sustapena
- Landa eremuetako jarduera ekonomikoaren sustapena
- Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatu
- Landa eremuko balioaniztasuna agerian jarri
- Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean emango dutena
- Landa eremuko emakume ekintzailea

Zazpigarren sari bat ere aurrikusten da baina kasu honetan eskualdeko produktu sorta bat izango du ordainsari eta hau bozka bidez erabakitzen da. Bozka hauek urkome.eus webgunean eman dira eta aurtengoan XXX bozka jaso dira.

Aurkeztu diren 10 proiektuak ondorengoak izan dira:

PROIEKTUAK
EKOIZLEAK ERDIGUNEAN
IRAGANA AHAZTU GABE , AURRERA JARRAI
AMALDA BIOBOTANIKA PROIEKTUA
TXARA JANARI DENDA
LABESU ARTISAU OKINDEGIKO PROIEKTUA
AMETSOLA USTIATEGIA
ENKARGUK
ITSAS KONTAINER GOURMET ONDDOAN EKOIZTEKO PROTOTIPOA
IKASELIKU
SHITAKE ONDDOA, BASOTIK

6 ataletarako irabazleak ondorengoak dira:

1º Nekazaritza jardueraren sustapena atalean

Titulua: IRAGANA AHAZTU GABE AURRERA JARRAI

Deskribapena: Gure ukuiluko lana erraztu eta inno baziora salto bat egiteko asmoz behiak biltzeko robota jarri dugu. Berrikuntza teknologikoak lagun izanik bi helburu lortuko ditugu, batetik behien ongizatea abalatzuz, gure dependentzia murriztea, eta bestetik euskal baserriaren bizitza bermatu hau aktualizatuz.

Egilea: MAITE MANCISIDOR

2º Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena

Titulua: ENKARGUK

Proiektu honek herritarren erosketak erraztu eta merkataritza txikiari eta azokaren kontsumoa indartzeko bide berriak sortzea du helburu nagusizat.

Funtzionamendua erraza da; bezeroak ekarguaren zerrenda bidaltzen du whatsapp zenbakira eta ondoren, etxean, saltokian bertan edota horretarako egokitutako kontsignan jaso ahalko ditu eskariak. Gaur egun 28 saltoki eta azokako 17 ekoizle ditugu proiektuan eta arlo honetatik kanpo dauden beste 80 saltokiri banaketa zerbitzua eskaintzen zaie.

Egilea: BERTAN, AZPEITIKO MERKATARI ELKARTEA (UXOA ETXEBERRIA)

3º Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatu

Titulua: TXARA JANARI DENDA

Deskribapena: Txara, Arroa beheko plazan kokatzen den janari-denda da. Auzotarrek faltan botatzen genuen zerbitzua eskatzeaz gain, Txara denon topagune izateko, auzo biziberritzen laguntzeko eta inguruko produktuak sustatzeko asmoarekin sortu da. Arroan bizitzeko apustua egin dugun 2 emakumeri lanpostua eman digu, eta auzotarrei kalitatezko eta bertako elikagaiak auzoan bertan eskuratzeko aukera.

Egilea: TXARA KOOP. ELKARTE TXIKIA

4° Landa eremuko balio-aniztasuna agerian jarri

Sari hau eman gabe gelditu da aurten batzordekieek horrela erabakita

5° Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean ematen dutena

Tituloa: SHITAKE ONDDOA, BASOTIK

Deskribapena: Shitakeak erreprodukzioarako behar dituen kondizio klimatikoei erreparatu ezker, kantauri isurialdeak era naturalean urtean 9 - 10 hilabetez produzitzeko aukera ematen digula ikusi dugu. Basoan, inongo zantzu industrialik gabe, bizi garen inguru zoragarriak ematen diguna baliatuz.

Gure asmoa da, Shitake onddoa produzitzeko behar den materia organikoa, baso garbiketetatik ateratako egurra aprobetxatzea, beste bizitza bat emanez.

KMO filosofiarekin bat eginez, Pagoeta Parke Naturalean egiten diren egur noblez (haritz, ametz , pago, gaiztain, haltza) osaturiko baso publiko edo pribatu ezberdinen garbiketetatik lortzea da gure xedea.

Egileak: JOSEBA IRURETAGOiena & JOSU ARRUTI

6° Landa eremuko emakume ekintzailea

Tituloa: AMALDA BIOBOTANIKA PROIEKTUA

Deskribapena: Gure, bertakoa eta ekologikoa den **sendabelar eta landare aromatikoen** kalitate goreneko ekoizpena izango da. Arlo honetan EAEn dagoen hutsune hori ase nahian sortu dugu **AMALDA**. Horretaz gain, gure ondare naturala eta jakintza kulturala babestuko ditugu, **bisita gidatuak, nahiz ikastaroak** eginez.

Egilea: AIORA URBIETA

7.-Sari irekia- bozka bidez egindakoaren emaitzak

Guztira 1146 bozka eman dira abenduaren 3tik Abenduaren 9ra bitartean www.arkome.eus webgunean

1.-POSTUA eta UROLA KOSTAKO PRODUKTU SORTA HONEN irabazlea 411 BOZKA %35,8 PORTZENTAIAREKIN

IRAGANA AHAZTU GABE AURRERA JARRAI
EGILEA: MAITE MANZISIDOR

Parte-hartzaile guztien artean Urola Kostako produktuen lote bat zozketatu da. Honetarako irabazleari zenbaki bat esatea eskatzen zaio (1-tik-1146ra). Aukeratutako zenbakia: 1035.

Urkometik harremanetan jarriko gara produktuen lotearen irabazlearekin.



*Argazkia irabazle eta mahaikideak

